

**Aurreiritzi linguistikoak  
(Euskara eta Teknologia)  
DBH 4- maila**

**ORDIZIAKO NORMALKUNTZA MINTEGIA**

## EDUKIEN TRIPTIKOA

| <b>KONTZEPTUZKO EDUKIAK</b>  | <b>PROZEDURAZKO EDUKIAK</b>   | <b>JARRERAZKO EDUKIAK</b>   |
|--|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Munduko kulturen aurreiritziak</li></ul>           | <ul style="list-style-type: none"><li>• Talde txikian hausnarketa eta ondorioak atera</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Kulturekiko errespetua</li></ul>                            |
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskal kulturaren inguruko aurreiritziak</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Talde handian bateratze lana burutu</li></ul>           | <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskarekiko ikuspegi kritikoa eta positiboa landu</li></ul> |


## 1. MUNDUKO KULTUREN AURREIRITZIAK

Kultura ezberdinekiko aurreiritziak agerian jartzea dugu helburu. Lehenengo saio hau ingeleseko klasean ere burutu daiteke.

+Denok ditugu aurreiritziak. Denok ditugu beste herrialde, kultura edo hizkuntza duten pertsonetikiko uste eta susmoak.




**Philipp Lensen izeneko internauta batek mapa hau burutu zuen.**



## 2. EUSKARAREN AURREIRITZIAK

+Zer iritzi diozu esaten dituenekiko? Taldean lan egin eta idatzi zuen ondorioak. Taldeko batek idazkari lana izango du. Bukatutakoan ondoko taldeari pasa zuen lana. Besteen ondorioak irakurri ostean, bateratze lana egingo dugu.

+Egoera: Japonia burua datorkigunean teknologia, gizalegea, bizitza luzea, ez zuzenak datorkigu burura.





Zer datorkigu burura euskaldunak aipatzean? Zer jarriko genuke mapan Euskal Herriaren lekuan? Taldeetan lan egin berriro ere aurreko dinamika bera jarraituz.



#### **4. EUSKARAREN AURREIRITZIAK**

**+Hasieran laburpena egingo dugu ingeleseko klasean aipatutakoei buruz. Zer ondorio atera dugu? Aurreiritziak ongi egon ohi dira? Oro har? Euskararen kasuan? Denok ados al geunden? Arriskurik ba al dute aurreiritziek?**

**+Komentatu talde txikian lehenengo eta handian ondoren aurreiritzi hauek: (talde bakoitzari aurreiritzi bat eman eta hausnartu )**

- 1. Euskara izugarri hizkuntza zaharra, arkaikoa edo primitiboa da; haren sustraiak antzina-antzinakoak dira.**
- 2. Euskara hizkuntza isolatua da, beste hizkuntzekin zerikusirik ez duena.**
- 3. Euskara elkarren artean ulertezinak diren hamaika dialekto ezberdinetan zatituta dago.**
- 4. Euskara batua hizkuntza artifizial asmatua da.**
- 5. Euskara hizkuntza zaila da erabat edo hein batean.**

**+Bi saioen ondoren ondorioetara iritsi, banaka lehenengo, talde txikian gero eta handian azkenik.**

